

AITA- IPARRAGIRRE HERRI ESKOLA

2018-2019 IKASTURTEA

GURE INGURUA GARBI MANTENDU DEZAGUNI!

Gure egunerokoan ez gara ohartzen inguruari egiten ari garen kalteaz. Gure zaborrak lurrera botatz, herria zikintzeaz gain, ba al dakigu ze kalte egiten ari garen gure planetari?



Maiatzaren 21ean, behatokian bildu eta gai honen inguruan hausnarketa egin genuen.

Herriko 3 gune ezberdin aukeratu ondoren, kalera atera ginen hauek nola ote zeuden ikusteko!

⇒ HAU DA TOPATU GENUENA

Lurrean botata, zabor ugari aurkitu genuen eginiko ibilalditxoan. Zaborrak azertu genituen eta ondorengo galderak egin genizkion gure buruari:

- Gustatu al zaigu ikusi duguna?
- Zer egin dezakegu hau ez gertatzeko?
- Noren ardura da gure ingurua garbi mantentzea?

GUZTION ARTEAN EGIN DEZAKEGU!!!



BIRZIKLAPENAREN GARRANTZIA

Ikasturte hasieran, Sasietak antolatutako ikastaro bat egin genuen nola birziklatu behar den gogoratzeko!

Jolas ezberdinak egin genituen gela barruan, baita gelatik kanpo ere!

Gure ingurua zaintzeko helburuarekin ondorio hauek atera genituen:

- ⇒ **MURRIZTU!**
- ⇒ **BERRERABILI!**
- ⇒ **BIRZIKLATU!**



ENERGIA

Udalaren laguntzarekin, energia gaia landu dugu, hiru galderari erantzuna bilatuz:

1. Ze energia mota ezagutzen ditugu? Energia iturri ezberdinak ikasi ditugu.

- ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIAK: inoiz amaitzen ez direnak, berriro sortzen direnak
- ENERGIA ITURRI EZ BERRIZTAGARRIAK: amaitzen direnak dira (petrolioa, ikatza)

2. Egunerokoa, ze energia mota erabiltzen dugu?

Efizientzia handik txikiak	A+++	Oso efizientzia-maila handia. % 55ek behearoko kontsumoa.
	A++	% 55 eta % 75 bitartean
	A+	% 75 eta % 90 bitartean
Tarteko kontsumoa dutenak	A	% 90 eta % 100 bitartean
	B	% 100 eta % 110 bitartean
Energia-kontsumo handia	C	% 110 eta % 125 bitartean
	D	% 125etik gora

Energia gabe ezin genezake gure etxea argiztatu ezta berotzeko ere, ezin genezake telebista ikusi...

Etxetresna ezberdinak, ze kontsumo dute? Etxetresna bat erosten duen kontsumoa kontutan edukitzea garrantzitsua dela ikasituz ditzen zaigu!



3. Zer egin dezakegu energia aurrezteko? Gure ikastetxean energia aurrezteko aholkuen inguruan lanketa egin dugu, hainbat kartelen bidez.

ENERGIA AURREPZENA POSIBLE DA!!!

Udalari eskolako argi indarraren faktura eskatu genion, energia gastua aztertu asmoz.

FACTURA DE ELECTRICIDAD CON GARANTÍA DE ORIGEN

IBERDROLA



Udalak, 1012,85 €ko faktura ordaindu zuen urtarrilean eguneko 60€ inguru. 4. mailako ikasleei asko iruditu zitzairen eta eskolako talde guztiei energia kontsumoa jaitsi eta faktura murrizteko erronka proposatu zien. Beraiek landutako gomendioak azaldu zizkieten beste mailetako ikasle eta irakasleei:

Hilabete pasa ondoren, udalari beste faktura bat eskatu genion eta...**SORPRESA! ERRONKA GAINDITU DUGU!**

Martxoko fakturaren zenbatekoa: 790,87€

GUZTION ARTEAN, 222 € AURREZTU DITUGU ETA ALDI EREAN, ARGINDAR GUTXIAGO ERABILTZEA! LORTU DUGU!!!

ETA ORAIN ZER EGIN DEZAKEGU?

- ⇒ Eskolan bezalaxe, etxean, herrian... argi indarra aurrezten saiatuko gara.
- ⇒ Gure ingurukoei (familiakoei, lagunei...) nola egin dezaketen azalduko diegu.

UDALARI ZER ESKATU DIEZAIKEGU?

- ⇒ Herritarrei gure mezua zabaltzea eta sorturiko kartelak herritarrei erakustea. Guztion artean egin bait dezakegu!
- ⇒ Bai eskolan, baita herrian ere energia iturri berriztagarri gehiago erabiltzea, adibidez, eguzki plakak.
- ⇒ Herrian zaharkiturik dauden farolak aldatuz joatea (beraien eraginkortasuna kontutan hartuz).
- ⇒ Eskolako pasabideetako argiak, automatikoki itzaltzen direnetakoak jartzea.
- ⇒ Aurrez, Agenda 21etik proposatutako eskaerei eustea.
- ⇒ Natura zaintzea guztion ardura dela aldarrikatu: Gure ingurua garbi mantenduz, birziklatuz, energia ezberdinen erabilpen arduratsu bat eginez.



ENERGIA ETA INGURUMENA

SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Ingurugiroa zaintzeko helburua hartuz, orain arte landutako gaiak hartu eta gogora ekarri ditugu:

- ⇒ Gure ingurua garbi izatea guztion lana da. Beraz, gure ingurua aztertu eta hau garbi mantentzeko konpromezua hartu dugu (eskola, jolastokia, kalea...).
- ⇒ Birziklapenaren garrantzia ikusirik, gogora ekarri ditugu edukiontzi ezberdinak eta bakoitzera bota beharrekoa zer den berrikusi dugu. Era berean, plastikoaren erabilpenaren inguruko hausnarketa egin dugu.
- ⇒ Energia gaia ere landu dugu. Alde batetik dauden energia motak aztertu ditugu eta aldi berean, gure energia kontsumoa aztertu dugu.

